



AGINDUA, 2022KO MAIATZAREN 10EKOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONESTEN DEN

ORDEN DEL 10 DE MAYO DE 2022, DE LA CONSEJERA DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES DE APROBACIÓN PREVIA DEL ANTEPROYECTO DE LEY VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD

Berdintasun, justizia eta gizarte politiketako sailburuaren 2021ko azaroaren 15ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Garapenerako Lankidetzari buruzko legearen aurreproiektua egiteko prozedurari.

Por Orden de 15 de noviembre de 2021, de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, se dio inicio al procedimiento para la elaboración del anteproyecto de la Ley de Cooperación para el Desarrollo.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 7.1. artikuluan xedatutakoari jarraituta: «Xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldeaz aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik».

De conformidad con lo establecido en el artículo 7.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, «una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, deberán contar con la aprobación previa por el órgano que haya dictado la orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan».

Aurrez adierazitako guztiagatik, eta emandako eskumenak baliatuta, honako hau

Por todo lo anteriormente expresado, y en virtud de las facultades atribuidas,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

LEHENENGOA: Aldez aurretik onestea Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektuaren testua.

PRIMERO: Aprobar, con carácter previo, el anteproyecto de Ley Vasca de Cooperación y Solidaridad.

BIGARRENA: Eusko Legebiltzarrari igortzea lege-aurreproiektuaren testua.

SEGUNDO: Remitir al Parlamento Vasco el texto del anteproyecto.

HIRUGARRENA: Aipatutako lege-aurreproiektua onesteko prozeduraren instrukzio-izapideak egiten jarraitzea, prozedurari hasiera eman zion 2021ko azaroaren 15ko Aginduan xedatzen denarekin bat etorrita.

TERCERO: Continuar el procedimiento de elaboración del referido anteproyecto de ley, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden dictada con fecha 15 de noviembre de 2021 que da inicio al citado procedimiento.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**

**DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
La Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ



LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

I

Euskadik ibilbide solidario luzea eta aitortua du Hegoaldeko herrieekin. Gaur egungo euskal lankidetzaz, politikak, lehentasunak eta biltzen dituen eragileak estu lotuta daude ibilbide horrekin.

Laurogeiko urteetan nazioarteko elkartasunaren inguruan egituratzen ziren gizarte zibileko euskal erakundeek Euskadin ongi sustraitutako bi tradizioetan zuten jatorria: misio-tradizioan eta internazionalismoan. Bi korrante horiek, itxura batean elkarrengandik nahiko aldenduak ziruditenak, zubiak aurkitu zituzten egituratzeko, eta eragin sozial eta politiko handiko aliantzak sendotu zituzten; aliantzak euren artean, euskal gizarteko eta Hegoaldeko herrietako mugimendu antolatuekin –hala nola mugimendu ekologistekin eta feministekin, batzuk aipatzearen– eta erakunde publikoekin. Euskal administrazio publikoek, hasieran, ekimen jakin batzuetan gauzatu zituzten gizarte bizi, mobilizatu eta anitz baten konpromisoak. Aipatzekoa da euskal udalerrri batzuek beren gain hartutako lidergoa, euskal gizartearen borrokarekin bat egiten zuten herriekiko senidetzeen bidez.

Euskal Herriko kaleetan oihartzun handia izan zuten % 0,7aren aldeko mobilizazioek, gizarte aberastuetako baliabide publikoak txirotutako herrialdeetan txirotasuna desagerrarazteko erabiltzeko eskatuz. Euskal gizartearen konpromiso hori erakundeen jardueretan gauzatu zen. Beharrezkoa da Gasteizko Udalaren aitzindaritzaz aitortzea, jada 1989an lankidetzaz politiketara bideratu baitzuen udal aurrekontuaren % 0,7.

Aurreneko konpromiso instituzional horren ondotik beste asko etorri ziren, eta laurogeita hamarreko hamarkadan, lankidetzaz-politikak aurrerapauso irmoak egin zituzten Hegoaldeko herriekiko alderdi solidarioa instituzionalizatzeko eta profesionalizatzeko bidean. Lehen urte haietan, garrantzitsuak izan ziren eragileen artean egituratzeko formak; esate baterako, 1988an Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) Koordinakundea sortu zen, 1996an Euskal Fonda–Euskal Herriko tokiko lankidetzaz-erakundeen elkarte sortu zen lankidetzaren alde ari ziren udalerrriak biltzeko, eta 1990ean Garapenerako Laguntza eta Lankidetzazako Funtsa sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko hiru Lurralde Historikoetako aldundien arteko akordioari esker.

Hamarraldi horietako ibilbideak markatu zuen Garapenerako Lankidetzazari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen orientabidea. Indarrean jarraitzen dute aurreko araudiko oinarritzako bi ezaugarriek, eta Euskadin egiten den lankidetzaz-politikaren ezaugarri bereizgarriak eta funtsezkoak dira hauek: i) hazkunde ekonomikoaren paradigmatik urruntzen den eta nagusi

den ereduarekin kritikoa den garapeneraren ikuskera, eta ii) politika publiko kolaboratiboa eta parte hartzailea.



Euskal lankidetzak ahaleginak egin ditu nazioarteko lankidetzaren ikuskera tradizionala gainditzeko, lankidetzeta mota hori norabide bakarrekoa baita, herrialde aberastuen baliabideak eta gaitasunak herrialde txiroetuei transferitzen diena. Euskal gizartearen ekintza solidarioek honako hauek sustatu nahi dituzte: i) harreman horizontalak eta ikaskuntza- eta truke-harremanak Hegoaldeko herriekin; ii) egiturazko erantzun iraunkorrak arazo konplexu eta interdependenteentzat, haien dimentsio globala gero eta erabakigarriagoa baita; eta iii) herriek beren patua eta beren garapen-eredua definitzeko duten eskubidea –ikuspegi unibertsalistatik eta uniformetik aldentuta–.

Gainera, euskal lankidetzeta sortu zenetik da politika publiko parte hartzailea, eta ezaugarri hau du: administrazioen eta GGKEen, akademiaren, Nazio Batuetako nazioarteko agentziekin lotutako erakundeen eta esparru honetan bide esanguratsua egin duten gizarte zibileko beste erakunde batzuen arteko lankidetzeta estua. Euskal gizarteak Hegoaldeko herriekin eta komunitateekin duen konpromiso solidarioa gizarte-ehun sendo eta askotarikoan islatzen da; aliantza zabalak eta iraunkorrak egin ditu lurraldeekin eta ezinbesteko eragileekin, esate baterako, emakumeen erakundeekin eta feministekin. Azken urteetan, arloko erakunde espezializatuek sare zabalak ehundu dituzte eta lankidetzarako zubiak eraiki dituzte Euskadiko eta Hegoaldeko oinarritzko erakundeekin, pertsona migratzaileekin, LGTBI+ kolektiboekin, nekazarien mugimendurekin eta abarrekin.

Ez dago euskal lankidetzeta eta elkartasuna ulertzerik pertsonak –besteak beste, kooperanteak, brigadistak, irakasleak, ikasleak, boluntarioak, bazkideak eta erakundeetako eta instituzioetako langileak– aipatu gabe; izan ere, justizia nahi sakon batek bultzatuta eta Hegoaldeko herrien duintasunak arduratuta ekintzetan gauzatzen dituzte euskal gizartearen balioak.

II

Erabat desparekoa den munduan bizi gara. Emakume, neskato, errefuxiatu, lurrik gabeko nekazari, naturaren eskubideen babesle, emakume trans eta bidegabekeriak desagerrarazteko borondate faltaren ondorioz bereizkeria jasaten duten pertsona guztien aurpegia du desparekotasunak.

Mundu konplexu batean bizi gara, maila globaleko prozesu interdependenteek eta eutsi ezinezko garapen- eta bizikidetzeta-ereduak ezaugarritzen dutena, gizakiaren bizitza eta planetaren bizitza bera arriskuan jarritz.

Badaude muturreko pobrezia murrizketan eta osasun- eta heziketa-mailen hobekuntzan egindako aurrerapenak erakusten dituzten adierazleak. Aitzitik, aurrerapen horiek ez dira nahikoa, eta handitu egin da desparekotasuna. Gainera, nazioarteko testuinguru berrian

nabarmentzekoak dira, besteak beste, aurrekaririk gabeko krisialdi sanitarioa, krisialdi klimatiko suntsitzailea, munduko hainbat herrialdetan bizitzeko eta bizirauteko moduetan eragin desberdinak izan dituen, giza eskubideen eta bakearen aldeko politikak eta akordioak txertatzeko prozesuetan atzera egin izana, eta fundamentalismoak edo herrialdeen arteko borrokak areagotu izana.



Gizateriak dituen erronka globalek aldaketak eragin dituzte garapenerako nazioarteko agendetan, eta ahuldu egin dituzte kooperazio-sistemetak oinarriak. Testuinguru horretan, euskal lankidetzarako politika publikoa ere ez da aldaketa horietatik kanpo geratu, eta bere nortasun-ezaugarriei eutsiz, eredu irekiago baterantz egiteko obligazioa du, gizarte osoari dei egiteko eta nazioarteko eremuan etengabe gertatzen ari diren aldaketetara ahalik eta modurik eraginkorrean egokitzeko.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean bere egin zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Agenda horrek herrialde aberastuak eta txirotuak konprometitzen ditu erronka globalei elkarrekin aurre egiteko, nagusi den garapen-eredu eutsi ezinezkoaren eraldaketari modu bateratuan heltzeko eta sistema horrek gaur egungo eta etorkizuneko pertsonen bizitzan eta planetarenean eragiten dituen inpaktu desberdinei erantzuteko.

“Bere baitan mundu asko hartzen dituen mundua” leloa onartzeak norberaren eraldaketa eta sistema global konplexu batean giza bizitzen jasangarritasuna bermatuko duen bizikidetzaren globala bilatzea eskatzen ditu. Gaur egun, inoiz ez bezala, ezinbestekoa da aurrerapausoak ematea gobernagarritasun demokratikoan oinarritutako bizikidetzaren markoetan, planetako pertsona ororen duintasuna bermatzeko, beren nortasunari eta ametsi uko egin behar izan gabe. Lortu nahi dugun munduan, gure eraldaketa-asmoek, justizian eta ekitatean oinarrituta, gizateriaren eta planetaren oraingo eta etorkizuneko bizitzekin batera existitzeko modua izan behar dute.

Erronka handi horien aurrean, ezinbestekoa da euskal lankidetzaren publikoa berritzea, eta horrexegatik, honako hauek lortu nahi dira lege honekin:

- Erantzunkidetasunaren arloan aurrera egitea. Erronka globalei aurre egiteak garapen eta justizia globalaren helburuen aldeko borondate, baliabide eta gaitasun gehiago mugiaraziko dituen lankidetzaren ekintza eskatzen du. Horretarako, ezinbestekoa da gizartearen bere osotasunean mugiaraztea eta eragileek egindako ibilbidea eta bildutako ezagutzak aintzat hartzea.
- Aliantzak osatzea ahalbidetzea. Arazo konplexuei eta interdependenteei aurre egiteko ezinbestekoa da erakunde- eta gizarte-maila guztiek onartzea elkarrekin aritzeko erantzukizuna. Gizateria gisa ditugun erronka globalen konponbideak beste herrialde eta herri batzuen esperientziarekin eta borondatearekin lotuta baizik ezin dira aztertu.
- Ekarpinak egitea lankidetzaren deszentralizatuaren aukera eta euskal gizartearen ezaugarri bereziak baliaturik. Bereizgarritasun hori mugitzen diren gizarte- eta erakunde-gaitasunetan eta bereziki esanguratsuak zaizkien erronketan islatzen da: besteak beste, hizkuntza- eta kultura-aniztasunean, bake prozesuetan eta gatazkak konpontzeko bideetan, eredu ekonomiko alternatiboetan, hala nola kooperatibismoan eta ekonomia sozial eta solidarioan, elkarrekin sendotzeko urratsetan, eta agenda feministetan eta ekologistetan sakontzeko ekimenetan.
- Euskadiko lankidetzaren eragileen artean koherentzia eta erantzunkidetasuna hobetuko dituen erakunde-arkitektura berri bat sendotzeko aurrerapausoak ematea. Erakundearen esparruan



administrazioen arteko koordinazioan aurrerapausoak emateko mekanismo eraginkorragoak ezartzea dakar, ezinbestekoak baitira politiken koherentzian eta kalitatean sakontzeko eta politika horien irismena handiagoa izateko.

- Gobernuak bere osotasunean garapenaren politika publikoari eta finantzaketari buruz duen ikuspegian aurrera egitea. Lege honek bere gain hartutako helburuek gainditu egiten dute lankidetzako zeregin espezializatua, helburua baita sektore eta sail guztiek aintzat hartzea beren politikek Hegoaldeko herrialdeetan eta lurraldeetan dituzten eraginak eta garapen jasangarrirako politika publikoen koherentziaren ikuspegian irmotasunez aurre egin ahal izatea.
- Lankidetzak eraldatzeko duen potentziala indartzea, diskurtsoaren eta praktikaren arteko arrakala txikituz. Nazioarteko agendek lankidetzan oinarritutako ekintzak garatzeko eta garapen-arazoaren ikuspegi dikotomikoa (Iparrak – Hegoak) hausteko deia egiten badute ere, laguntzaren norabide bakarreko ikuspegiak erabat baldintzatuta ditu lankidetzak politikaren gaur egungo tresnak. Lege honen bidez konpromisoa hartzen da finantzaketak tresnak lortu nahi diren garapen, justizia eta bizikidetzak globaleko helburuetara egokitzeko bidean aurrera egiteko.

III

Euskaditik erantzukizunez eta umiltasunez egiten diegu aurre garapenaren erronka globalei, ongi baitakigu lege honekin bilatzen diren helburuetan aurrera egiteak gainditu egiten duela lankidetzako politika sektoriala, eta euskal eragile instituzional eta sozial guztiak inplikatzen dituela.

Euskal lankidetzak aukerak zabaltzeko nahi dituzte Hegoaldeko herriak beren patuaren protagonista izan daitezkeen. Beraz, euskal lankidetzak eta elkartasun publikoak batik batik Hegoaldeko herrialdeetan edo lurraldeetan lan egingo du, baina horrek ez du esan nahi krisi humanitarioek kaltetutako beste lurralde batzuk bazter utziko dituenik. Euskadin, lankidetzak eta elkartasun politikak euskal herritarren kontzientzia kritikoa eta solidarioa zabaltzea helburu duten jarduerak sustatuko ditu, giza garapenaren eta iraunkortasunaren, justiziaren eta bizikidetzak globalaren alde.

Sustatu nahi dugun Hegoaldearen protagonismoarekin bat etorrita, Hegoaldeko herrialdeetan eta lurraldeetan bideratzen diren jarduerak batez ere tokiko erakunde publiko edo pribatu baten bitartez gauzatzen dira, jarduera egiten den herrialdeko erakunde baten bitartez. Modu horretan Hegoaldeko herritarren eta botere publikoen protagonismoan jartzen dugu indarra, horietatik baitira politika honen subjektu nagusiak. Nazioarteko agenteek, profesionalak eta boluntarioek, Nazio Batuetako erakundeek edo garapen, ekintza humanitario eta giza eskubideen gaietan –besteak beste– espezializatutako erakundeek Hegoaldeko agenteekin batera egiten duten lanari kalterik egin gabe burutuko dira jarduera horiek, lan hori ezinbestekoa baita errealitate horiek eraldatzeko.

Lege honen ondorioei begira, hegoaldeko herrialdeak edo lurraldeak dira, nahitaez planetaren hegoaldeko hemisferioan egon behar izan gabe, garapenerako laguntza ofiziala jasotzeko Garapenerako Laguntza Batzordeak (aurrerantzean GLB) –edo hura ordezkatzeko duen



erakundeak– hauta ditzakeenak. “Hegoaldeko herrialdeak” erabiltzen dugu Nazio Batuek asko darabilten terminoa delako eta atzean utzi nahi delako batez ere garapen-teorienak diren kontzeptuen erabilera, hala nola “hirugarren mundua” edo “garatzeko bidean dauden herrialdeak” kontzeptuen erabilera, ez baitatoz bat lege honek bilatzen duen garapenaren ikuskerarekin.

Lege honetan baztertu egin dugu “garapenerako lankidetzak” terminoaren erabilera, eta lankidetzak eta elkartasun-politikak ditugu hizpide; geure eginez begirada kritikoak, “garapena” herrialdeek lortu behar duten egoera ekonomiko edo sozial gisa hartzen duen ikuskera mugatzailearekiko begirada kritikoak, alegia. “Garapen-arazoek” batez ere Hegoaldeko herritarren txirotasunarekin eta ongizate-gabeziarekin dute zerikusia, baina ez dira horretara mugatzen. Aitzitik, estu lotuta daude, besteak beste, planetaren hazteko mugekin, desparekotasunekin, aberastasunaren, baliabideen eta boterearen banaketa ez zuzenarekin eta askatasun, bake eta segurtasun faltarekin. Gisa horretan, lege honen bidez, euskal lankidetzak eta elkartasun-politika publikoak justizia eta bizikidetzak globaleko helburuetarantz egiten du, baita pertsonen –norbanakoen eta taldeen aniztasunetik– eta planetaren zentralitatea bere egiten duen garapenaren ikuskera zabal baterantz.

Nazioarteko agendek proposatzen dizkiguten eraldaketak aurrera eramateko, ezinbestekoa da ahal diren eragile, ahalegin eta baliabide guztiak mobilizatuko dituen ekintza kolektibo bat abiaraztea. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak goian adierazitako erronkei aurre egitera konprometitzen gaitu, elkarrekin eta aliantzan; horregatik, aldaketak ekarriko dituzten emaitza iraunkorrak lortzeko, ezinbestekoak dira erantzukizun partekatuak eta bereziak zabaltzea, garapen jasangarrirako koherentziaren esparruan aurrera egitea eta jarduerak behar bezala koordinatzea. Hain zuzen ere horixe da lege honek, aurrekoak ez bezala, lankidetzak-agenteen zerrenda bat ez lantzeko arrazoia; izan ere, aliantza zabaletan sakondu nahi du, eta beren bereizgarritasunetik eta erantzukizun berezitik ekarpenak egin ditzaketen pertsona, erakunde eta entitate sozial eta pribatu guztiak bildu nahi ditu.

IV

Hiru xedapen iragankorrek, lege hau indarrean jarri arte indarrean dagoen esparru juridikoaren xedapen indargabetzaile batek eta azken lau xedapenek ematen diote amaiera lege honi.

I. kapituluak lankidetzarako euskal politika publikoa finkatzen da, euskal lankidetzaren ezaugarri nagusiak, helburuak, printzipioak eta lankidetzak-ekintzaren lehentasunezko ikuspegiak azpimarratzen dira, eta arauaren aplikazio-esparrua zehazten da. Aurrekoak ez bezala, lege honek euskal administrazio publikoaren hiru mailetara zabaltzen du aplikazio-eremua –bakoitzaren eskumen-esparruan–, eta politika solidarioaren aldeko eragile guztiei dei egiten die.

II. kapituluak euskal lankidetzak publikoaren antolamendua dago jasota. Bertan finkatzen dira euskal administrazioen eginkizunak eta eskumenak erakundeen arteko lankidetzari, garapen jasangarrirako politiken koherentziari eta kontuak emateari dagokienez. Kapitulu honetan euskal lankidetzaren aholku- eta koordinazio-organoak arautzen dira: Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde Arteko Batzordea.



III. kapitulua euskal lankidetzaren jarduera-modalitateen plangintzari eta zehaztapenari eskainita dago, eta kontuan hartzen du lankidetzaren publikoko tresnak lankidetzaren aritzen diren herrialdeen eta herrien errealitateetara egokitu behar direla.

IV. kapituluan finkatzen dira euskal lankidetzaren politika gauzatzeko baliabideak eta gaitasunak. Atal honetan zehazten dira, alde batetik, finantzaketa-aurreikuspenak $-0,7\%$ ko konpromisoa indartuz eta dirulaguntzen araubidea, eta bestetik, pertsonen buruzko alderdiak $-$ lankide profesionalak, prestakuntzaldian daudenak, boluntarioak eta sektore publikoko administrazioetako langileak $-$.

V. eta azken kapitulua ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketari eta komunikaziorako mekanismoei buruzkoa da.

Hiru xedapen iragankorrek, lege hau indarrean jarri arte indarrean dagoen esparru juridikoaren xedapen indargabetzaile batek eta azken lau xedapenek ematen diote amaiera lege honi, eta ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari arau bidez garatu dezan.



I. KAPITULUA. LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL POLITIKA PUBLIKOA

1. artikulua. Legearen xedea

Lege honen xedea da euskal administrazio publikoek lankidetzaz eta elkartasun-gaietan dituzten politiken araubide juridikoa finkatzea eta arautzea.

2. artikulua. Aplikazio-esparrua

1.- Lege hau euskal administrazio publikoek eta lege honek araututako jarduerak edo zerbitzuak garatzen edo ematen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek, pribatuek zein publikoek, dute aplikagarri.

2.- Lege honen ondorioei begira, hauexek dira euskal administrazio publikoak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoetako foru-organismoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak.
- b) Euskal administrazio publikoari lotutako edo haren mendeko erakunde publikoak eta zuzenbide publiko zein pribatuko entitateak.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa.

3.- Lege hau izango dute aplikagarri nortasun juridiko propioa duten elkarteek, espezifikoki interes orokorreko beharrei erantzuteko sortuak izan badira eta industria- edo merkataritza-izaera ez badute, aurreko atalean adierazitako entitateek sortuak badira eta lankidetzaz eta elkartasun-arloko jarduerak garatzen badituzte.

3. artikulua. Euskal lankidetzaz eta elkartasuna

Euskadik, Hegoaldeko herrien protagonismoan oinarritutako ikuspegi eraldatzaile batetik, giza garapenaren eta iraunkortasunaren, justiziaren eta bizikidetzaz globalaren alde jartzen dituen jarduera, gaitasun, baliabide eta balio solidarioen multzoa da euskal lankidetzaz eta elkartasuna.

4. artikulua. Lankidetzaz eta elkartasunerako euskal politika publikoa

1.- Euskal administrazio publikoek lege honen helburuak lortzeko sustatzen dutena da lankidetzaz eta elkartasunerako euskal politika publikoa.

2.- Lege honetan aurreikusitako helburuak lortzeko, beharrezkoa da lankidetzaz eta elkartasunerako politika publikoa:



- a) Arnas luzekoa izatea eta Hegoaldeko herrien txirotze, desparekotasun eta bazterketa-arrazoen egiturazko eraldaketa bilatzea, eta, ondorioz, Euskadin eta maila globalean ere aldaketak sustatzea.
- b) Elkartasun-printzipioan –eta ez, besteak beste, kanpo-politikaren irizpideek baldintzatuta– eta horizontaltasun-printzipioan –Hegoaldeko herriekiko elkartasun-harremanak finkatzea du xede– oinarrituta egotea.
- c) Ikuspegi feministatik, ikuspegi eko-sozialetik, giza eskubideen ikuspegitik, toki- eta lurralde-mailako ikuspegitik eta garapen jasangarrirako politiken koherentziaren ikuspegitik garatzea.
- d) Norberaren eta beste eragile batzuen baliabideak –finantzarioak eta gaitasunak– garapenaren alde mobilizatzeko gai izatea.
- e) Gobernuak bere osotasunean duen ikuspegian aurrera egitea, garapen-agenda globalei laguntzeko, haien esperientziatik abiatuta eta Hegoaldeko herrien esperientziarekin uztartuta.

5. artikulua. Helburuak

Hauexek dira lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoaren helburuak:

- a) Hegoaldeko herrietan txirotasuna eta bazterkeria eragiten dituzten egiturazko arazoak eraldatzeko ekarpena egitea eta giza garapena eta iraunkortasuna sustatzea, ildo horretan adosten diren agenda globalei ekarpenak eginda.
- b) Desparekotasunaren aurka borrokatzea eta, giza eskubideen nazioarteko testuinguruan, justizia globala sustatzea, bereziki dimentsio hauetan: ekonomia, gizartea, generoa eta ingurumena.
- c) Gizarte askeak, demokratikoak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea eta herrien arteko bizikidetzara globala bultzatzea. Helburu hori lortzeko, gobernantza demokratikoan eta herritartasun globalaren eraikuntzan sakonduko da.
- d) Euskal gizartearen eta bere erakundeen mobilizazio solidarioa bultzatzea eta horien garapen, justizia eta bizikidetzara globalaren helburuen aldeko inplikazioa babestea.

6. artikulua. Printzipioak

Honako printzipio hauek ditu oinarri lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoak:

- a) Konpromiso solidarioa. Lankidetzara eta elkartasun-jarduerak guztion ongiaren aldeko eraldaketa- eta erantzunkidetasun-konpromiso etikotik sortzen dira, enpresa- edo geopolitika-onuren moduko itzulketen zain egon gabe, eta ideologia- edo erlijio-proselitismotik urrun mantentzen dira.



- b) Hegoaldearen protagonismoa. Batik bat Hegoaldeko herrien beharrezane, interesei eta estrategiei erantzuten diete jarduerak. Printzipio horrekin bat etorrita, horizontalak dira Euskadiren eta lankidetzan aritzen diren lurraldeen eta herrialdeen arteko lankidetzak-loturak, eta berdintasunean oinarritutako harreman hurbiletan oinarritzen dira, kultura, ekonomia edo beste mota bateko inposiziorik gabe.
- c) Parte hartzea. Planetako pertsona eta herri guztientzako ondasun publikoen hornidura justua eta iraunkorra lortzeko, beharrezkoa da aliantzak eta lankidetzak-jarduerak eratzea. Horregatik, hain zuzen ere, eragile instituzionalek eta sozialek parte hartzen dute lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoa diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko lanetan.
- d) Ekitatea. Lankidetzak-jarduerak, besteak beste, sexuagatiko, genero-identitateagatiko, sexu-orientazioagatiko, etnia- edo arraza-jatorriagatiko, hizkuntza- eta kultura-identitateagatiko, adinagatiko, ideologiagatiko edo erlijioagatiko diskriminaziorik ezean oinarritzen dira. Justiziarik dagokionez aurrera egiteko, desagerrarazi egin behar dira pertsonen, herrialdeen eta lurraldeen desparekotasunak eta bazterkeria eragiten dituzten egiturazko oztopoak. Horretarako, ekitate-printzipioa izango da ardatz, tratu-berdintasuna gainditzen baitu eta emaitzetan berdintasuna lortzea baitu helburu.
- e) Erantzukizun partekatua eta bereziak. Hainbat erronka global, interdependente eta konplexu egoteak hainbat errealitate eta eragile lotzen dituzten jarduerak eskatzen ditu, tokiko prozesuen beren arteko eta estrategia globalen arteko erlazioa sakontzen duten jarduerak. Guztien ongiaren eta bizitzan iraunkortasunaren aldeko erantzukidetasun-konpromisoak ekonomia-, gizarte- eta kultura-ereduak eraldatzea eskatzen du, bai Euskadin bai beste herrialde batzuetan.
- f) Koherentzia. Euskadiko eragile instituzionalek eta sozialek sustatutako lankidetzak-jarduerak koherenteak eta koordinatuak izango dira beren artean, lankidetzak-politikaren helburuak lortzeko badira. Osagarritasunari dagokionez, esku hartzen duen eragile bakoitzaren gaitasunak eta izaera berezia aitortu behar dira, lankidetzak-ekintza gogoan eta egitekoak ez bikoizteko helburua kontuan hartuta.
- g) Kalitatea. Lankidetzarako euskal politikaren eraginkortasun, efizientzia eta irismen handiagoa erdiesteko, hauexek lortu behar dira:
- i) lankidetzak-politikara bideratzen diren funts publikoak nahikoak, jarraituak eta aurreikusteko modukoak izatea;
 - ii) prozedurak bizkorak eta zentzuzkoak izatea, lankidetzan aritzen diren herrialdeetako eta lurraldeetako errealitateetara eta esku hartzen duten eragileen izaerara egokituta;
 - iii) lankidetzak-jarduerak eraldaketaren emaitzen irismena, jasagarritasuna eta lorpenak iraunkorak izatea lehenestea.



- h) Etengabeko hobekuntza. Euskal lankidetzak ezagutzak berritu, ikasi, horietaz hausnartu eta trukatzeko, politika hori hobetzeko eta erronka globalei modu eraginkorragoan heltzeko. Horretarako, esku hartzen duen tokiko errealitateak behar bezala ezagutuko ditu, errealitate horietara hurbiltzeko jakintzen eta estrategien aniztasuna aitortuko du, eta elkarrekin ikastea bultzatuko du.

7. artikulua. Lehenasunezko ikuspegiak

Lehenasunezko ikuspegi hauen arabera garatuko da euskal politika publikoa:

- a) Giza eskubideen ikuspegia, ingurumen-, ekonomia-, gizarte- eta kultura-arloko eskubide indibidualen edo kolektiboen izaera integrala aitortzen duena. Giza eskubideen aldeko nazioarteko konpromisoen indarraldia aldarrikatzen du, eta eskubideen, betebeharren eta erantzukizunen titularren funtsezko eginkizuna indartzen duten estrategiei heltzen die.
- b) Ikuspegi feminista, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen duena eta nagusi diren ekonomia, politika eta kultura-ereduak sakonki zalantzan jartzen dituena. Estrategia duala – genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna eta emakumeen ahalduntzea– emakumeen bizipenen analisi intersektionalarekin osatzen du, eta emakumeen eta erakunde feministen protagonismoa lehenesten du gizarte baketsu, inklusibo eta jasangarriak lortzeko.
- c) Ikuspegi eko-soziala, hazkunde ekonomikoak eta hazkunde horrek planetako herrietan sorrarazitako inpaktu desberdinek eragindako ekosistemen kolapsoa ikusarazten duena. Egungo eta etorkizuneko bizitzen jasangarritasuna arriskuan jarriko ez duen trantsizio sozio-ekologikoan aurrerapauso sendoa ematearen aldeko apustua egiten du.
- d) Lurralde-oinarriko ikuspegia, lurralde berean dauden baliabide eta gaitasun publiko eta sozialak mobilizatzea eskatzen duena, giza garapenari eta jasangarritasunari ikuspegi integral eta multidimentsional batetik heltzeko. Tokiko boterea handitzea du helburu, eragileen gaitasunak indartuz eta maila anitzeko aliantzak bultzatuz.
- e) Garapen jasangarrirako politika publikoen koherentziaren ikuspegia, politika publikoaren ikuspegi integrala aplikatzeko beharra azpimarratzen duena, osagarritasunak aprobetxatzeko eta gatazkak murrizteko egungo eta hurbileko erronkei aurre egiteko konpromisoan oinarrituta, eta etorkizuneko belaunaldiekiko eta planetarekiko konpromisoan eta ekintza propioek beste gizarte batzuetan duten eraginean oinarrituta. Ikuspegi horrek esan nahi du administrazio bakoitzak bere erantzukizunak eta politika guztien eraginak aztertu behar dituela, garapenari, justiziarri eta bizikidetzara globalari dagokienez, eta horien arabera jardun behar duela.



II. KAPITULUA. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN ANTOLAMENDUA

8. artikulua. Lankidetza- eta elkartasun-eragileak

1.- Lege honen esparruan, honako hauek dira lankidetza-eragileak: beren gaitasunekin, baliabideekin eta erantzukizun espezifiko eta bereziekin lege honetan aipatzen diren garapen, justizia eta bizikidetza globaleko helburuak betetzen laguntzen duten erakundeak –publikoak edo pribatuak, tokikoak, naziokoak edo nazioarte mailakoak–. Gainera, definizio horretan sartzen dira lege honen 20, 21, 22 eta 23. artikuluek aintzat hartzen dituzten pertsona fisikoak.

2.- Pertsona juridikoei dagokienez, Euskadiko lankidetza-eragileak dira helbide soziala edo ordezkari-tza Euskal Autonomia Erkidegoan duten erakundeak.

9. artikulua. Euskal administrazio publikoak lankidetza- eta elkartasun-eragile

Euskal administrazio publikoek beren burua antolatzeko ahalak erabiliz eta autonomia osoz gauzatuko dituzte lankidetza- eta elkartasun-arloan dagozkienak:

- a) Euskadiko baliabide solidarioen mobilizazio ahalik eta handiena sustatzea, lege honen helburuak lortzeko.
- b) Gainerako lankidetza- eta elkartasun-eragileen arteko elkarri-zketa, lankidetza eta laguntza sustatzea, baita haien arteko aliantzak eratzea ere.
- c) Euskal herritarren elkartasun-balioak eta jokabide- eta portaera-aldaketak bultzatzea, gizarte bidezkoagoak, zuzenagoak eta inklusiboagoak sustatzeko.
- d) Lankidetza-politiketan, euskal administrazioen arteko osagarritasuna, koordinazioa eta koherentzia sustatzea eta beste administrazioen eta aldebiko eta alde askotako agentzien arteko koordinazioa bultzatzea.
- e) Plangintzak eta ebaluazioak egitea sustatzea, lankidetza- eta elkartasun-arloetan.
- f) Gardentasunaren eta kontuak ematearen arloan aurrera egitea, eta euskal herritarrek eta jarduten den herrialdeetako eta lurraldeetako herritarrek lankidetza- eta elkartasun-ekimenei buruzko informazio eskuragarria eta eguneratua izatea sustatzea.
- g) Garapen jasangarrirako politiken koherentzia sustatzea eta garapen-erronka globaletan laguntzea beren erakundeen sektore-politika guztietatik.
- h) Beren zerbitzura dauden langileei zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak bultzatzea, garapen jasangarrirako politiken koherentzia sustatzeko.
- i) Lege honen artikuluek esleitzen dizkieten beste guztiak.



10. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokio:

- a) Lege hau erregelamendu bidez garatzea arautu beharreko alderdi guztietan.
- b) Bere lankidetzaren eta elkartasun-politikaren gidalerroak zehaztea.
- c) Eusko Legebiltzarrari Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren eta elkartasunaren arloko urte anitzeko plangintza-proposamena igortzea, batzordean eztabaidatzeko eta, egoki iritziz gero, gomendioak emateko.
- d) Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren eta elkartasun-arloko urte anitzeko planak Gobernu Kontseiluan onartzea.
- e) Eusko Legebiltzarrari urtero bidaltzea eta agerraldian aurkeztea Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren eta elkartasun-erloan egindako jardueren betearazpen-txostena.
- f) eLankidetzaren-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari aurreko letretan adierazitako plangintzak eta txostenak egiteko behar den lankidetzaren eta elkartasun-arloko informazioa bidaltzea.
- g) Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluak egindako Euskal Lankidetzaren Egoerari buruzko Txostena Eusko Legebiltzarrari bidaltzea, osoko bilkuran eztabaida dezan.
- h) Lege honetan aurreikusitako eginkizunak, hauekin lotuta: garapen jasangarrirako politiken koherentzia, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea.

11. artikulua. eLankidetzaren-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia

1.- eLankidetzaren-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia da lankidetzaren eta elkartasun-politika planifikatzen, koordinatzen, kudeatzen, gauzatzen eta ebaluatzen duen Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa, eta giza garapenaren eta jasangarritasunaren, justiziaren eta bizikidetzaren globalaren helburuak lortzea du xede.

2.- eLankidetzaren-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak berau sortzeko legea edo hura ordeztzen edo aldatzen duten arauak, bere garapen-araudia eta lege honetan xedatutakoak ditu arau.

3.- eLankidetzaren-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak honako eginkizun hauek ditu esleituta:

- a) Eusko Jaurlaritzari lankidetzaren eta elkartasun-arloko gidalerroak prestatzen laguntzea, baita beharrezkoak diren erregelamendu-arauak garatzen ere.



- b) Ezarritako gidalorroetan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren eta elkartasun-politika planifikatu, koordinatu, kudeatu, gauzatu eta ebaluatzea.
- c) Lankidetzaren eta elkartasun-ekimenak identifikatu, formulatu eta gauzatzea eta horien gaineko jarraipena eta ebaluazioa egitea. Horretarako, deialdiak egin eta laguntzak eta dirulaguntzak eman ahal izango ditu, eta kontratuak, elkarlan-hitzarmenak, lankidetzarakordioak eta izaera juridiko bertsua duten beste akordio batzuk egin ahal izango ditu.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan eLankidetzaren-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari emandako baliabide ekonomikoak eta materialak kudeatzea.
- e) Lege honen helburuak lortzeko laguntzak, dirulaguntzak eta beste funts publiko zein pribatu batzuk lortu, kudeatu eta transferitzea.
- f) Arau-proposamenak garatzea dagokion jardueraren esparruan.
- g) Bere helburuen barruan beharrezkoak diren administrazio- eta xedapen-egintzak eta ekonomia- eta finantza-eragiketak egitea.
- h) Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren eta elkartasunaren arloko urte anitzeko plangintza egitea eta ebaluatzea. Plangintza horrek sail, organismo eta entitate lotuen edo mendekoen jardueraren multzoa bilduko du.
- i) Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren eta elkartasun-arloan burututako jardueren betearazpen-txostena egitea, urtero.
- j) Eusko Jaurlaritzari, hari lotutako edo haren mendeko organismo eta erakundeei eta beste euskal administrazio publiko batzuei laguntzea beren jardueraren eremuaren barruan egiten dituzten lankidetzaren eta elkartasun-ekimenak kudeatzen eta gauzatzen.
- k) Eusko Jaurlaritzari eta hari lotutako edo haren mendeko organismo eta erakundeei laguntzea beren politika sektorialak lege honen helburuekin koherenteak izan daitezen.
- l) Eusko Jaurlaritzaren lehendakaritza bere gain hartzen duen sailari aholku ematea, garapen jasangarriko politiken koherentzia sustatzeko lanean.
- m) Sail, organismo edo erakunde lotuek edo mendekoek eskatuta, beren planek Hegoaldeko herrialdeetan eta lurraldeetan izan ditzaketen eraginei buruzko txostenak egitea, eta aholkuak eta gomendioak ematea.
- n) Kide anitzeko edo sailen arteko organoetan parte hartzea, Hegoaldeko herrialdeetako eta lurraldeetako errealitateak ezagutzea garrantzitsua denean Eusko Jaurlaritzaren politikak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko.



- o) Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluko eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordeko idazkaritza-lanak egitea.
- p) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkieten gainerakoak.

12. artikulua. Garapen jasangarrirako politiken koherentzia

1.- Garapen jasangarrirako politiken koherentziak eskatzen du giza garapenaren ikuspegia eta ingurumen-iraunkortasuna administrazio publiko bakoitzaren politiken diseinuan, praktikan eta ebaluazioan txertatzea eta politiken eta erakundeen arteko osagarritasunak indartzea eta gatazkak arintzea. Koherentzia horrek eragina du politikek ingurune hurbilean, beste herrialde eta lurralde batzuetan eta etorkizuneko belaunaldietan duten inpaktuan.

2.- Garapen jasangarrirako politiken koherentziari dagokionez, hauexek dira Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza Sailari dagozkion eginkizunak:

- a) Gobernuaren politika guztiak giza garapenarekin eta jasangarritasunarekin koherenteak izatea bultzatzea, politika horiek Hegoaldeko herrialdeetan eta lurraldeetan izan ditzaketen ondorio negatiboak ez gertatzeko edo murrizteko.
- b) Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluari aldizka garapen jasangarrirako politiken koherentziaren arloan egindako jardueren berri ematea, bereziki kanpo-ekintzari, erosketa publiko arduratsuari, ingurumen-estrategiari eta balioetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza-politikari dagokienez.
- c) Beste sail batzuen, organismoen edo Eusko Jaurlaritzarekin lotutako edo haren mendeko entitateen planei buruzko aholkularitza eskatzea eLankidetzara–Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari, plan horiek Hegoaldeko herrialdeetan eta lurraldeetan edo lege honen helburuetan eragin badezakete.

3.- Garapen jasangarrirako politikak koherenteak izan daitezen bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek, lotutako edo mendeko organismoek eta erakundeek kontuan izan beharko dute, beren eskumenak erabiltzean, euren planek eta jarduerak Hegoaldeko herrialdeetan eta lurraldeetan izan dezaketen eragina. Eragin hori aztertzeke, aholkularitza eskatu ahal izango diote eLankidetzara–Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari.

4.- Hegoaldeko herrialde edo lurraldeei dohaintzak edo ekarpenak gauzatan egiten dizkieten Eusko Jaurlaritzako sailek eta haiei lotutako edo haien mendeko organismoek eta erakundeek, ondareari buruzko araudia eta aplikatu beharreko gainerako araudia betetzeaz gain, honako alderdi hauek hartuko dituzte kontuan, gutxienez, dohaintzan emandako ondasunei dagokienez: gizarte-, kultura- eta teknologia-egokitasuna, tokiko ekonomian duten eragina, bizitza erabilgarria, igorpenari eta mantentze-lanei atxikitako kostuak, eta bizitza erabilgarriaren amaieran hondakinak banatzeko, biltegiratzeko eta modu eraginkorrean eta seguruan kudeatzeko sistemak.



5.- eLankidetzeta–Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak zaindu egingo du garapen jasangarrirako politiken koherentzia, eta, besteak beste, 11.3 artikuluan ezarritako eginkizunak gauzatuko ditu.

13. artikulua. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua

1.- Euskadin Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua da lankidetzeta- eta elkartasun-arloko aholkularitza- eta partaidetza-organo nagusia, eta euskal lankidetzeta publikoa proposatzeko, erabakitzeke eta jarraipena egiteko ahalmena du.

2.- Kontseilu hori lankidetzeta- eta elkartasun-arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan lankidetzari eta elkartasunari emandako baliabideekin bere eginkizunak betetzeko nahikoa baliabide ekonomiko izango du.

3.- Kontseiluaren osaera parekidea da erakunde- eta gizarte-ordezkariei dagokienez, eta emakumeen eta gizonen osaera orekatua errespetatzen du, beti.

4.- Kontseiluaren eginkizunak dira:

- a) Lankidetzeta- eta elkartasun-arloan administrazio publikoei eta Euskadiko gainerako eragileei aholkularitza ematea, informazioa ematea eta laguntzea.
- b) Eragileen arteko (publikoak eta pribatuak, tokikoak, nazio mailakoak edo nazioarte mailakoak) elkarrizketa ahalbidetzea, garapen, justizia eta bizikidetzeta globalaren helburuak sustatzeko.
- c) Euskal administrazio publikoen lankidetzeta- eta elkartasun-politikei buruzko proposamenak egitea, aztertzea eta haien gaineko jarraipena egitea.
- d) Aldez aurretik eta nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzeta- eta elkartasun-arloko xedapen orokorreari eta urte anitzeko plangintza-proposamenei buruzko txostena egitea.
- e) Bost urtean behin Euskal Lankidetzaren Egoerari buruzko txostena egitea. Bertan ebaluatuko dira, besteak beste, lege honetan hartutako konpromisoen betetze maila, eta administrazio publikoei eta Euskadiko lankidetzeta-eragile guztiei zuzendutako gomendioak bilduko ditu, lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika hobetzeko. Txosten hori Eusko Legebiltzarrari igorriko zaio, osoko bilkuran eztabaidatu dezan eta, hala badagokio, gomendioak eman ditzan. Kontseiluak gomendio horien ezarpenaren gaineko jarraipena egingo du aldizka.
- f) Lankidetzarako eta elkartasunerako politika publikoaren hobekuntzan aurrera egiteko azterlanak eta proposamenak egitea eta eztabaidatzea, eta arreta berezia jartzea garapen jasangarrirako politiken koherentzian.



- g) Lankidetzarako eta elkartasunerako politika publikoa hobetzeko eta horretan aurrera egiteko interesgarriak diren lankidetz- eta elkartasun-jarduerak eta ekimenak ezagutzea.
- h) Arauz esleitzen zaizkion beste guztiak.

5.- Erregelamendu bidez garatuko dira kontseiluaren osaera, izendapenak eta kargu-uzteak, funtzionamendua eta eginkizunak.

14. artikulua. Erakunde arteko elkarlana lankidetzaren eta elkartasunaren arloan.

1.- 2. artikuluko hirugarren apartatuan adierazitako administrazioek eta elkarteek, euren artean edo beste erakunde publiko edo pribatuekin elkarlanean, erakunde arteko jarduerak gauzatu ahal izango dituzte. Horretarako, lankidetz-mekanismoak aurreikusi ahal izango dira, hala nola hitzarmenak, partzuergoak eta beste lankidetz-formula egonkor batzuk.

2.- Erakunde horiek finantzaketa-funts komunak osatu ahal izango dituzte, eta funts horiek elkarrekin kudeatuko dituzte edo parte hartzen duten erakunde publikoetako baten esku utzi ahal izango dute kudeaketa.

3.- Finantzaketa-funts komun horien xedea, helburua eta kudeatzeko era, besteak beste funts horiek osatzen dituzten erakundeek sinatutako lankidetz-hitzarmenen bidez arautuko dira.

15. artikulua. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea

1.- Lankidetz- eta elkartasun-arloan, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea da euskal administrazio publikoen arteko koordinazio- eta lankidetz-organoa.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, foru-administrazioaren eta toki-administrazioaren ordezkariak osatzen dute batzordea, eta lege honen 2. artikulua hiru apartatuan adierazitako elkarteak izan daitezke batzordekide. Batzordeak errespetatu egiten du emakumeen eta gizonen osaera orekatua.

3.- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea lankidetz- eta elkartasun-arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago.

4.- Batzordearen eginkizunak dira:

- a) Euskal administrazio publikoen arteko elkarrizketa eta elkarrekiko laguntza ahalbidetzea, lankidetz- eta elkartasun-politikaren kudeaketa eta emaitzak optimizatzeko.
- b) Euskal administrazioek egiten dituzten lankidetz-jardueren koherentzia, koordinazioa eta osagarritasuna bermatzea, besteak beste, honako ekintza hauen bidez:
 - i. informazioa trukatzu;



- ii. bikoiztasunak eta gainjartzeak saihestuz;
 - iii. estrategia eta ildo komunak landuz;
 - iv. arloko azterlanak, txostenak eta ebaluazioak eztabaidatuz;
 - v. Euskal Lankidetzaren Egoerari buruzko Txostenaren eztabaidaren ondorioz Eusko Legebiltzarrak emandako gomendioak aztertuz, eta, hala badagokio, plangintzetan eta jardueretan gomendio horiek aintzat hartuz.
- c) 14. artikulua aurreikusten duenarekin bat etorrira, erakunde arteko jarduerak sustatzea eta koordinatzea.
- d) Arauz esleitzen zaizkion beste guztiak.

5.- Erregelamendu bidez garatuko dira batzordearen osaera, izendapenak eta kargu-uzteak, funtzionamendua eta eginkizunak.

III. KAPITULUA. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN PLANGINTZA ETA MODALITATEAK

16. artikulua. Plangintza

1.- Euskal administrazioek, beren burua antolatzeko ahalak erabiliz eta autonomia osoz, banaka edo batera prestatuko dituzte urteko eta urte anitzeko plangintzak euren lankidetzaren eta elkartasun-jarduerak antolatzeko.

2.- Aurreko apartatuan aurreikusitako plangintzak orokorrak izan daitezke, edo lurralde- edo sektore-esparru espezifikoetarako buruzkoak, edo politika honetarako bereziki garrantzitsuak diren beste alderdi batzuei buruzkoak.

3.- Urte anitzeko plangintzak lantzeko, euskal administrazio publikoek bideak sustatuko dituzte herritarrek, banaka edo antolatuta, eta lege honen helburuetan eragin dezaketen eginkizunak dituzten sailek edo arloek parte har dezaten.

4.- Urte anitzeko plangintzek gutxienez alderdi hauek jasoko dituzte: a) egoeraren diagnostikoa; b) helburuak; c) lehentasun estrategikoak; d) aurrekontu-aurreikuspenak; e) lankidetzaren tresnak eta funtsak esleitzeko ehunekoak; f) indarraldia; g) jarraipen- eta ebaluazio-sistemak.

5.- Behin urte anitzeko planen indarraldia amaituta, administrazio publikoek, beren eskumenen arabera, ebaluatu egingo dituzte. Ebaluazio horiek egiteko, Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen Garapenean Laguntzeko Batzordeak edo erakunde baliokideek finkatutako oinarriko irizpideez gain, lege honetan ezarritako lehentasunezko ikuspegiak ere kontuan hartu ahal izango dira.



17. artikulua. Lankidetzaren modalitateak

1.- Lankidetzaren arloko jarduerak garatzeko, euskal administrazio publikoek lankidetzarako politika publikoaren esku jarriko dituzte lege honen helburuak eraginkortasunez lortzeko behar diren modalitate, tresna eta prozedura guztiak.

2.- Euskal administrazioek lankidetzaren arloko jarduerak egin ahal izango dituzte zuzenean edo, besteak beste, legean ezarritako helburu, printzipio eta ikuspegi arabera diharduten gobernu kanpoko erakunde, nazioarteko erakunde eta erakunde multilateralen, eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen bitartez.

3.- Lankidetzaren politika egikaritzeko bideratu behar diren jarduerak dagokion administrazioaren funts propioekin egin daitezke, edo beste administrazio edo erakunde batzuek lagatutako funtsekin, edo herritarrek eurek transferitutako funtsekin.

